

# UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuaren argitalpenen eskuliburua

5. edizioa (2024ko uztaila)

[www.ehu.eus/argitalpenak](http://www.ehu.eus/argitalpenak)

**Euskara, Kultura eta  
Nazioartekotzearen  
arloko errektoreordetza**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



UPV/EHUren  
Argitalpen  
Zerbitzuaren  
argitalpenen  
eskuliburua

**5. edizioa (2024ko uztaila)**



## 2021eko EDIZIOAREN AURKEZPENA

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak 1982an hasi zuen bere ibilbidea. Hala ere, 2009an argitaratu zuen lehenengo estilo-liburua. Liburu hartan jaso ziren, besteak beste, gurean argitaratzen ziren lanek bete beharreko irizpideak, eta lan horiek zein eratan izango ziren ebaluatuak.

Bere sorreratik gaurdaino, beste hainbat prozesuk bezala, argitaratze-prozesuak ere hainbat eraldaketa izan ditu, izan kalitate-irizpideak zorrotzuz joan direlako, izan teknologia berriak alor honetara ere iritsi direlako. Hori dela eta, gure lanei aplikatu izan zaien araudia ere aldatuz joan da. Dinamika horren lekuko da honako hau izatea araudi horren laugarren bertsioa.

Gainera, aurten erabaki dugu arau eta argibide horien multzoari edo bildumari *Argitalpenen Eskuliburu* izena ematea. Hori ere egokitze-prozesuaren adierazgarri da, etengabeko hobekuntza eta moldaketaren emaitza, hain zuzen.

Azken urteotako erronketako bat izan da gure argitalpenek punta-puntako kalitate-irizpideak betetzea. Helburu horren emaitza dira, adibidez, gure hainbat aldizkarik FECYT Kalitate Zigilua lortu izana, bai eta gure bildumetako batzuk ANECAk ziurtatutako CEA-APQ zigiluak eskuratu izana ere.

Aurrera begira, ildo beretik jarraitzea da gure asmoa; hau da, aldaketetara egokitzen eta aldi berrien eskakizunei aurrea hartzen jarraitzea.

Leioan, 2021eko abenduaren 9an

M. Juncal Gutierrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea

## **2017KO EDIZIOAREN AURKEZPENA**

Zortzi urte iragan dira Argitalpen Zerbitzuaren lehendabiziko Argitalpenen Eskuliburua argitara atera zenetik. Denbora guzti honetan, modu batean edo bestean, liburu eta aldizkariak argitaratzen diharduten pertsonak oso izan dituzte kon-tuan lehendabiziko edizio hartan adierazitako ekintza ildoak.

2009ko Estilo Liburu honekin, gure unibertsitateak apustu sendoa egin zuen egileen ahalegina balioztatzen, UPV/EHUren argitalpenak kalitate maila gorenetera jartzera bideratutako mekanismoak argitalpen prozesuan sartuko badira. Honen lekuko dira argitara atera beharreko originalak hautatzeko baldintza zurrinak, kanpokoen ebaluazioak eta argitalpen prozesuen normalizazioa. Lan iraunkor eta zorrotz honek emaitzak ekarri ditu. Hauetan azkena da gure serie eta bildumek Academic Publishing Quality (APQ) edizio akademikoaren kalitatezko zigilua lortu dutela, beren lehenengo edizioan. Aintzatespenok pizgarri dira argitalpen kalitatea hobetzeko prozesuan aurrera egiteko bidean.

Bide honetan, Argitalpenen Eskuliburuaren edizio berri hau aurkeztu nahi dugu, Argitalpen Kontseiluaren azken bileran lortu diren akordioek eratorritako zenbait aldaketa eta artikuluetan sartutako beste aldaketa batzuk jaso dira, edukia aldatu gabe, bertako edukien argitzen laguntzen duten aldaketak.

Leioan, 2017ko azaroaren 1ean  
Jon Zarate Sesma  
Euskararen arloko errektoreordea

## **2015eko BIGARREN EDIZIOAREN AURKEZPENA**

2009. urte amaieran, UPV/EHUko Argitalpen Batzordeak Argitalpen Zerbitzuaren Argitalpenen Eskuliburua onartu zuen. Tresna honen helburua, hain zuzen, eskuizkribuak argitaratzeko irizpideak definitzea zen, edukiei, aurkezpenari eta ebaluazioari dagokienean, eta betiere, Argitalpen Zerbitzuaren Arautegiaren esparruan.

Argitalpenen Eskuliburuak izaera dinamiko eta praktikoa dauka zehaztua; argitalpen produkzioari eragin diezaioketen egoera berrietara erraz egokitzeko aukera ematen diguna. Eta hori, hain zuzen, izatea eman dion arautegiaren beraren izaera egonkor eta formalagoari kontrajarritako ezaugarria da.

Zehazki, baliabide ekonomikoak hobetzeko egun daukagun premiak eraman gaitu Argitalpenen Eskuliburuan hainbat aldaketa txertatzera; era horretan, UPV/EHUren Estatutueto zutabe nagusietako bat beteta, gizon zein emakumeen jakintza zientifikoa, teknikoa, soziala, humanistikoa eta artistikoa zabaltzea bermatzen jarraitu ahal izateko, nola unibertsitateko kideen artean, hala gizartean.

Nolanahi ere, Argitalpen Zerbitzuak urteak daramatza teknologia berrien aldeko apustu erabakigarria egiten, teknologia horiek argitaratutako lanak hedatzeko irtenbide egoki eta berritzaileak eskaintzen baitituzte. Guzti hau administrazio publikoek halabeharrez mantendu behar duten aurrekontu euspena eragozpen bilakatu gabe.

Eta jakina, Argitalpenen Eskuliburuak ez du alde batera utziko goi kalitateko argitalpen produkzioa gauzatu eta sustatzeko hasieratik izan duen helburua, lan hori jendearengana formatu batean zein bestean iristea.

Leioan, 2015eko uztailaren 1ean.

Jon Zarate Sesma

Euskararen arloko errektoreordea

## **2009ko ARGITALPENAREN AURKEZPENA**

Unibertsitateetako argitalpen produkzioak garapen nabarmena izan du azken urteotan, lanak argitaratzeko bide nagusietako bat baita akademiko eta ikertzaileentzat. Hori dela eta, unibertsitateek ahalegin handia egin dute arlo hori hobetzeko.

Zeregin horretan, sortutako lanak unibertsitateko kideen artean eta, oro har, gizartean zabaltzen dira. Hala ere, produkzioaren zati bat oso ikusgai ez dagoenez, argitaratutako lanek ia ez dute eraginik izaten.

Egoera horren aurrean, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua ahalegin handia egiten ari da bere argitalpen produkzioaren kalitatea hobetzeko. Horretarako, beharrezkoa da zerbitzu horien produkzio prozesuetako lana eta zerbitzuak ematerakoan eskainitako kalitate konpromisoak hobetuko dituzten mekanismoak ezartzea. Baina, kalitatea hobetzeak lanak aurkeztu eta ebaluatzeko egin beharreko urratsak ezagutarazten laguntzen duten mekanismoak ezartzea ere badakar. Horren haritik, estilo liburu hau UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren Arautegia garatzeko asmoz prestatu da.

Bertan, idazlanak argitaratzerakoan edukiei, aurkezpenari eta ebaluazioari dagokienez zer irizpide aplikatuko diren biltzen da. Nolanahi ere, irizpide horien gainetik zehaztasun eta gardentasun irizpideak egongo dira. Helburua UPV/EHUko argitalpen produkzioaren kalitate maila handitzen lagunduko duen erreferentziazko agiria sortzea da.

Leioa, 2009ko urriaren 1a,  
Amaia Maseda García  
Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate  
Hedakuntzaren aldeko errektoreordea



## **AURKIBIDEA**

ATARIKOA: Argitalpenen izaera.....	10
1 Argitalpen ildoak eta liburuak argitaratzeko prozesua.....	11
1.1 Unibertsitateko testuak .....	11
1.2 Jardunaldi, kongresu, sinposio, hitzaldi eta omenaldietako aktak.....	13
1.3 Serieak eta bildumak.....	13
1.4 Monografiak .....	15
2 Argitalpen instituzionalak.....	17
3 Aldizkariak.....	18
3.1 Argitalpen Funtseko aldizkarietarako kalitate adierazleak.....	18
3.2 Aldizkariak argitalpen funtsean sartzeko eta geratzeko baldintzak.....	20
1. ERANSKINA: JATORRIZKOAK AURREZTEKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK.....	25
2. ERANSKINA: ARGITALPENEN ZERRENDA.....	27

## **ATARIKOA: ARGITALPENEN IZAERA**

UPV/EHUren argitalpen produkzioak liburuak, aldizkariak eta beste argitalpen batzuk barne hartzen ditu, zabalkunderako jartzen zaien euskarria edozein dela ere. Bere edukiagatik, produkzio hori ondoongo ataletan sailkatzen da:

- Liburuak: testuliburuak, bilera zientifiko eta akademikoetako aktak, serieak eta bildumak, eta monografiak.
- Argitalpen instituzionalak.
- Aldizkariak.

# 1 ARGITALPEN ILDOA ETA LIBURUAK ARGITARATZEKO PROZESUA

## 1.1 Unibertsitateko testuak

Unibertsitateko testuen argitalpen produkzioan merkataritzako interesa eta unibertsitate arloko maila tekniko eta zientifikoa uztartzen dituzten lanak barneratzen dira, bai eta joera hezigarri garbia duten lanak ere, beren zehaztasuna eztaba daezina delako, beharrezkoak direlako eta argitalpenerako eta merkaturako interesgarriak direlako argitaratu direnak.

### *A) Euskararen arloko Errektoreordetzak proposatutako itzulpenak*

Estatuko eta nazioarteko argialetxe garrantzitsuek kaleratu dituzten eta interes akademiko eztaba daezina duten beste hizkuntza batzuetako lanen euskararako itzulpenak dira.

Halakoetan, Argitalpen Zerbitzuak honela jokatzeko du:

- Lana euskaratzeko eta euskaraz argitaratzeko eskubideak eskuratzeko prozesu osoa kudeatzen du: jatorrizko eskubideak dituztenak aurkitu, baldintza ekonomikoak negoziatu, kontratua behin betiko sinatu bitarteko kudeaketa lanak egin eta eskubideen aurretiko ordainketak izapidetu, Euskara Errektoreordetzarekin koordinatuta.
- Jatorrizko liburuen kopiak eskatzen ditu, nola paperean hala formatu digitalean. Itzulpen zerbitzuetara bidaltzen du, Euskararen arloko Errektoreordetzaren jarraibideen arabera.
- Lana itzuli ondoren, Argitalpen Zerbitzua liburua editatu eta argitaratzeko prozesu osoaz arduratzen da, bai eskubideak dituen argialetxearekin salmenta prezioa eta liburua merkatuan sustatu eta dibulgatzeko modua negoziatzeaz bai aldeek sinatutako itunaren arabera bidali beharreko aleak bidaltzeaz.

- Urtero Argitalpen Zerbitzuak txostena bidaltzen dio eskubideen jabe den argitaletxeari urtean zenbat kopia saldu diren esanez, liburuaren salmentek zer bilakaera duten ikusi ahal izateko.
- Argitalpen kostua Euskara Errektoreordetzaren kontura izango da.

### **B) Unibertsitateko testu arruntak**

Ikasleei zuzendutako liburuak dira, funtsean eskuliburuak, betiere, oinarritzko ikasmaterialtzat jotzen bada kasuan kasuko irakasgaiari. UPV/EHUko ikasketa planetako batean helburu duten irakasgaiaren uneko programarekin bat etorri behar dute.

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak saileko kontseiluak egingako ziurtagiria eskatuko dio irakasgai horiez arduratuko den sailari. Bertan, lanak interes didaktikoa duela eta edukia irakasgaiaren programara egokitzen dela adieraziko da.

Egileak, lanaren behin betiko jatorrizkoarekin batera, eskabidea bidali behar dio Argitalpen Zerbitzuko zuzendariari. Eskabidean, ondorengo informazioa agertuko da, besteak beste: testua zer titulaziorik eta irakasgai erabil dezaketen, hauen izaera (derrigorrezkoak edo hautazkoak diren), zer irakaslek ematen dituzten, aurreikuspenen arabera zenbat ikasle izango diren eta aurkeztutako lana argitaragabea dela.

Testua euskaraz egonez gero, Argitalpen Zerbitzuak aukerako hizkuntza txostena egiteko eskatuko dio Euskararen arloko Errektoreordetzari.

Argitalpen Zerbitzuko zuzendaritzak, lanaren jakintza esparruko batzordeak aholkatuta, eta haren interes akademiko eta komertziala aztertu ondoren, lana argitaratzea egokia den ala ez den erabakiko du.

## **1.2 Jardunaldi, kongresu, sinposio, hitzaldi eta omenaldietako aktak**

Liburu hauek egokitasun eta kalitate irizpide orokorrekin bat etorritik argitaratuko dira, ekitaldiaz arduratu diren UPV/EHUko ikastegi, sail, institutu edo bestelako unibertsitate egitura batzuen erantzukizun zientifiko eta finantza erantzukizunaren pean.

## **1.3 Serieak eta bildumak**

### *1.3.1 Helburua*

Serieak eta Bildumak ataleko liburuek, hain zuzen, artea, kultura, zientzia, teknologia eta hezkuntza hedatzen laguntzen dute, eta argitalpenen merkatuan eskaria izan dezaketen esparru tematikoak zehaztasunez jorratzea dute helburu.

### *1.3.2 Serieak eta bildumak sortzea eta mantentzea*

Bilduma edo serie bat sortzeko, ezinbestekoa izango da dagokion eskaera gauzatzea. Horri, hain zuzen, memoria akademikoa eta ekonomikoa erantsi beharko zaizkio, honako alderdi hauek guztiak biltzeko:

- Serie edo bildumaren batzorde zientifiko eta argitalpen batzordea.
- Jatorrizko lanak aukeratzeko metodoa.
- Aurreikusitako lehenengo izenburuak.
- Finantzaketa iturri posibleak.
- Kanpoko parte-hartzeetarako aurreikuspenak.
- Garrantzitsutzat jotako beste zeinahi informazio.

Argitalpen Kontseiluak positiboki balioetsiko du zuzendaritzaz jabetzen den pertsonaren profil akademikoa eta profesionala behar adinako egokitzapenari eta koherentziari lot dakizkien sortu beharreko seriearen/bildumaren gaiei, filosofiari eta helburuei dagokienez.

Serie edo bilduma bat mantentzeko, bestalde, UPV/EHUko Argitalpen Kontseiluak, hiru urtean behin, ebaluatuko ditu dauden serie eta bildumak eta aintzat hartuko du, bestelako alderdiak tartean, ea zer-nolako eragina izan duten horiek akademikoki eta gizartean, bai eta zer erregularitasun, kostu, finantzaketa eta hedapen izan duten ere. Serie edo bilduma horiek eduki ahal izateko, ezinbestekoa izango da ebaluazio positiboa lortzea. Ebaluazio hori gaituzten ez duten serie eta bildumak automatikoki bertan behera geratuko dira.

### *1.3.3 Liburuak Serie eta Bildumetan txertatzeko eskatzea*

Jatorrizkoen argitalpen proposamenei UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren kalitate irizpideak bete behar dituzte. Jatorrizkoak aurkezteko eta ebaluatzeko prozesuan zehaztasun eta garden-tasun printzipioak eta ebaluazioa egiten duenaren anonimotua bermatzeko printzipioak aplikatuko dira eta ondorengo prozeduraren bidez garatuko da:

- Jatorrizkoen aurkezpena: egileak, lanaren behin betiko jatorrizkoarekin batera, eskabidea bidali behar dio Argitalpen Zerbitzuko zuzendariari, behar bezala beteta. Eskabidean, ondorengo informazioa agertuko da, besteak beste: datu pertsonalak, lanaren izenburu osoa (aurrerago alda daiteke), interes zientifikoa, helburuko irakurleak eta lanak merkatuan izan dezakeen garrantzia. Aurkeztutako lan guztiak argitaragabeak edo jatorrizko ikerketa baten emaitza izango dira.

### *1.3.4 Parekoen ebaluazio bikoitz itsua garatzeko prozesua*

Honako pauso hauek beteko ditu ebaluazio prozesuak:

- Lehenik eta behin, Argitalpen Zerbitzuko zuzendariak aztertuko du testua, lanak jorratzen duen jakintza esparruari dagokion Argitalpen Kontseiluko Batzordeari kontsulta egin ondoren. Aipatu batzordeak erabakiko du lana dagokion seriean edo bilduman sar daitekeen edo ez.
- Hala bada, Argitalpen Zerbitzuko zuzendariak bi pertsona aukeratuko ditu kanpo ebaluatzaile gisa eta beste bat

ordezko gisa. Guztiak zozketa bidez izendatuko dira lanak jorratzen duten jakintza esparruko Batzordeak proposatutako zortzi txostengile espezialisten artean.

- Ebaluazio txostenak lanaren jatorrizkoa bidali eta bi hilabetetara egon behar du Argitalpen Zerbitzuko zuzendaria eskuetan.
- Seriearen edo bildumaren zuzendaritzak, hala badagokio, batzorde zientifikoaren beraren eta/edo obraren jakintzarloko batzordearen aholkuarekin, kanpo ebaluazioko txostenak aztertu ondoren, erabakiko du argitalpena onartu egingo den, atzera botako den edo, hala badagokio, beste ebaluazio txosten bat eskatuko den:
  - Aldeko bi txosten egiten badira, lana argitaratzeko aholku gisa baliatuko da. Nolanahi ere, aldaketak egin ahal izango dira kanpo ebaluazioko txostenean bildutako iradokizun eta gomendioen arabera.
  - Kontrako bi txosten egiten badira, lana ez argitaratzeko aholku gisa baliatuko da.
  - Ebaluazio bat aldekoa bada eta bestea kontrakoa, hirugarren ebaluazio txostena eskatu ahal izango da.

### **1.3.5. Ebaluatu beharreko bestelako liburu mota batzuk**

Egindako eskariak serie edo bildumarik ez balu eta Argitalpen kontseiluaren kasuan kasuko batzordeak ebaluatu behar dela baderitzo, 1.4.4. atalean deskribaturiko prozedurari jarraituko zaio.

## **1.4 Monografiak**

Atal honetan sartuko dira aurreko ataletan sartzen ez diren argitalpenak, betiere, ikuspegi zientifiko, akademiko edo instituzionaletik interesgarriak badira.

Argitalpen hauek osorik edo zatika autofinantzatuko dira, koeditatzeko kontratuen bidez edo subentzio ofizial, ikerketa proiektu eta abarretatik eratorritako finantzaketaren bidez.

Ez da onartuko finantzaketa egilearen ondare pertsonalarena izatea.

Argitalpen ildo honetan sartzen diren obrak gutxienez 100 orrialdekoak izango dira, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak kalitate irizpideei buruz ezarritako baldintzak betetzeaz gainera.

Salbuespen gisa, aurreko paragrafoan adierazitako gutxi-  
nekora iristen ez diren jatorrizkoak argitaratzea azter liteke,  
baldin eta argitaratu nahi den liburuak xede duen gaiarekin  
lotutako bi instituziok eta/edo erakunde publikok memoria  
baten bidez bermatu eta egiaztatzen badute proposatutako  
argitalpenak interes soziala, zientifiko, pedagogiko edo zile-  
gizko bestelako interesik duela.



## 2 ARGITALPEN INSTITUZIONALAK

UPV/EHUK nahiz bertako edozein egiturak dituen premia akademikoen zein administrazio edo komunikazio premien ondorioz sortutako argitalpen guztiak dira.

Honako hauek dira, besteak beste, argitalpen instituzionalak: memoria akademikoak; Unibertsitatearen katalogoa; ekitaldietako liburuak (Honoris Causa bezalako ekitaldi akademikoetakoak, inbestidura ekitaldietakoak edo ikasturte hasierako mintzaldietakoak); hezkuntza gidak, unibertsitatera sartzekoak, kudeaketakoak eta kalitatekoak; aurrekontua eta kudeaketa txostena; eta izaera orokorreko beste batzuk, adibidez, erabilera eskuliburuak, arautegiak, agendak, aldizkariak, erakusketa kulturalen katalogoak, nahiz eskatzen den beste edozein.

Argitalpen horiek zerbitzua eskatu duen erakundeak finantzatzeko ditu osorik.

### 3 ALDIZKARIAK

Argitalpen Zerbitzuak ateratzen dituen izaera tekniko, zientifiko edo hezigarriko aldizkariak izango dira UPV/EHUK sailetan, ikastegietan, institutuetan eta Unibertsitateko bertako beste egitura batzuetan egiten diren ikerketen, azterlanen eta jakintzarako ekarpenen emaitza ezagutarazi ahal izateko erabiliko dituen argitalpen bideetako bat. Argitalpen Zerbitzuak aldizkariak euskarri digitalean argitaratzea bultzatuko du, horrela, UPV/EHUko web orrian duen atariaren bidez kontsultatu ahal izateko.

UPV/EHUko Argitalpen Funtseko aldizkari guztiak eduki eta kalitate zientifikoari buruzko irizpide finko eta normalizatu jakinei lotu beharko zaizkie. Argitalpen batzordeak eta batzorde zientifikoak izango dituzte. Horiek arduratuko dira edukien kalitateaz eta, beraz, argitalpenaren ildo zehaztuko dute.

Edozelan ere, jatorrizkoak aurkezteko eta ebaluatzeko prozesuan zehaztasun eta gardentasun printzipioak eta ebaluazioa egiten duenaren anonimatua bermatzeko printzipioak aplikatuko dira. Lanek argitaragabeak izan behar dute eta ezin dute beste bitarteko batean onartzeko edo argitaratzeko bidean egon.

#### 3.1 Argitalpen funtseko aldizkarietarako kalitate adierazleak

UPV/EHUK bere argitalpen funtsa osatzen duten aldizkari kalitatea baino ez du bermatzen. Aldizkari horien kalitatea neurtzeko, lehenengo erreferentzia gisa Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak (FECYT) hala eskatuta prestatu den *La edición de revistas científicas: directrices, criterios y modelos de evaluación* izeneko agirian jasotzen diren irizpideak hartuko dira aintzat. Agiri hori, Espainiako aldizkari zientifikoaren kalitateari buruzko beste batzuekin batera,

Zientzia eta Teknologiaren Espainiako Gordailuaren web orrian kontsulta daitezke.

Argitalpen kalitatea neurtzeko FECYTEk ezinbestekotzat jotzen dituen irizpideen artean, ondorengoak daude, besteak beste:

**Informazioaren kalitatea: helburuen, irizpideen eta oinarritzko arau eskakizunen azalpen zehatza ematea, esaterako, honako hauek egitea:**

- Egileei irizpide zehatzak ematea.
- Laburpenak egitea eta hitz gakoak erabiltzea.
- Aurkibidea, artikuluen izenburuak, hitz gakoak eta laburpenak ingelesera itzultzea.
- Egileen izenak modu uniformearen aurkeztea, beren datu profesional guztiakin batera.
- Aldizkariaren argitalpen batzordeak eta batzorde zientifikoak (zuzendaria, erredakzioko idazkaria, erredakzio batzordea, argitalpen batzordea edo aholku batzordea) eta beren eginkizunak zehatz-mehatz eta erabat identifikatzea.
- Argitalpen prozesuari eta, bereziki, idazkiak zuzentzeko sistemari eta ebaluatzeko irizpideei buruzko informazioa ematea.

**Argitalpen prozesuaren kalitatea.**

- Aldizkariaren maiztasunaren arabera ezarritako epeen barruan agertzea.
- Arbitraje zientifikoko sistema erabiltzea: erredakzio kontseiluko kide batek argitalpen berrikusketa egitea eta ondoren, jatorrizkoen ebaluazioa modu anonimoan egitea. Lan bakoitzerako ad hoc eta aldizkaritik kanpo hautatutako berrikusleek egingo dute ebaluazio hau.

**Argitalpenaren kalitatea: kontrol eta ebaluazio zientifikoko organoek eta produkzio eta banaketako organo teknikoek eratutako egitura bat egotea.**

- Aldizkariaren argitaratzailearen eta argitalpen taldearen ospea.
- Edukien ardura luketen argitalpen eta zientzi batzordeak egotea, jardunean eta argitalpen esperientzia duten izen handiko zientzialariek osatuta.
- Batzordeen, bereziki argitalpen edo aholkularitza batzordeen, jatorri geografikoa edo instituzionala: gutxienez heren bat argitalpena egingo duen ez beste erakunde batekoak izango dira.

### **3.2 Aldizkariak argitalpen funtsean sartzeko eta geratzeko baldintzak**

#### **A) Argitalpen inprimatuen funtsa**

*Beste aldizkari batzuk txertatzeko eskatzea.*

Aldizkari berriak txertatzeko edo lehendik daudenak Argitalpen Zerbitzuaren Inprimatutako Aldizkarien Funtsetik kentzeko, ezinbestekoa da UPV/EHUko Argitalpen Kontseiluren onarpena. Argitalpen Zerbitzuak soil-soilik interes zientifiko eta akademiko ukazina duten aldizkariak gehitu eta edukiko ditu bere Inprimatutakoen Argitalpen Funtsean.

Honako baldintza hauek bete behar dira aldizkariak inprimatutakoen Argitalpen Funtsean txertatzeko:

- Oro har, % 50eko autofinantzaketa izan beharko dute, bai fakturazio garbiaren bidez (hau da, ez dira trukeak kontutan hartuko), bai argitalpenak sustatuko lituzketen sail, ikastegi, institutu edo UPV/EHUren bestelako egituren ekarpenen bidez, bai eta kanpo erakundeen subentzioen bidez ere.
- Egiaztatu beharko da aldizkaria, aldez aurretik, gutxienez bi urtean etenik gabe argitaratu dela.
- Eskaera egin duen aldizkariari begira, Argitalpen Kontseiluak balioespen positiboa egitea, aurreko atalean deskribatutako gutxieneko kalitate irizpideak betetzen dituela ziurtatzeko.

Lehenengo baldintza betetzen duten baina antzinatasunari buruzko bigarren baldintza betetzen ez duten argitalpenen kasuan, Argitalpen Kontseiluak oniritzia eman ahal izango dio sartzeko eskaerari, honako kasu hauetan:

- Proposatutako aldizkariak eskaera egiteko unean indarrean dagoen UPV/EHUn Plan Estrategikoan zehaztutako helbururen bati erantzuten dionean.
- Nazioartean eragina izan dezakeen eta nazioarteko iker-tzaileen ekarpenak erakartzeko gaitasuna duen aldizkaria izatea aurreikusten denean.
- Jardunean dauden UPV/EHUn aitortutako bi ikerketataldereen edo gutxienez UPV/EHuko bi sail eta/edo ikastetxeren babes zabala duenean, tokiko eta nazioarteko dezberdinen eragileren lankidetzara, argi eta garbi zeharkako eta diziplinarteko proiektu bat islatzen duena.

Kasu horietan, proposamena aldi baterako, zehazki hiru urtez, onartu ahal izango du Argitalpen Kontseiluak, eta denbora hori pasatu ostean proposatutako helburuen irismena ebaluatuko da.

Azken bi baldintzak betetzen dituzten baina lehenengoan aipatutako finantzaketarik ez duten argitalpenak bertsio digi-talean argitaratuko dira, soil-soilik.

Aldizkari berriren bat inprimatutako funtsean txer-tatuz gero, onarpen eskaera bidali beharko zaio Argitalpen Zerbitzuaren Zuzendaritzari, honako informazio hau jasota:

- Aldizkariari lotutako sail, institutu, ikastegi edo unibersitateko beste egitura batzuen izena, kontrol eta ebaluazio zientifikoko organoak eta horien zuzendaria adierazita.
- Aldizkariaren helburuak eta merkatu aukerak biltzen dituen proiektua.
- Trukean interesa izan dezaketen aldizkariaren zerrenda.
- Aldizkarian argitara daitezkeen jatorrizkoak onartzeko arauen proposamena.

- Aldizkariaren lehenengo bi urteetako memoria ekonomikoa, arestian adierazitakoaren arabera finantzaketa bideak bertan deskribaturik.

*Aldizkariak inprimatutako aldizkiriaren Argitalpen Funtsean edukitzea.*

Aurreko atalean aipatutako autofinantzaketa baldintzak bere horretan jarraituko du aldizkariak Argitalpen Zerbitzuaren inprimatutako Aldizkariaren Funtsean dauden bitartean. Uneren batean baldintza hori bete ezean, aldizkariaren argitalpen inprimatua etengo da, ezinbestean, eta soil-soilik edizio digitalean argitaratuko da.

### **B) Euskarri digitaleko argitalpen funtza**

Argitalpen Zerbitzuaren atariak UPV/EHUko Argitalpen Funtseko aldizkari zientifiko guztien web bertsioak biltzen ditu, bai aldizkari inprimatuen funtseko guztienak bai aurreko atalean ezarritako gutxienezko kalitate irizpideak betetzen dituzten eta funtsean sartu nahi duten guztienak.

Euskarri Digitaleko Argitalpen Funtsean txertatzeko, ezinbestekoa izango da Argitalpen Batzordearen oniritzia. Horretarako, aldezturik, sustatzaileek Argitalpen Zerbitzuaren Zuzendaritzara bidali beharko dute eskaera, honako informazio honekin:

- Aldizkariak lotura duen sailen, institutuen, ikastegien eta unibertsitateko beste egitura batzuen informazioa.
- Kontrol eta ebaluazio zientifikorako organoen eta horietako zuzendarien berri.
- Argitalpen horrek, sarean, gutxienez urtebeteko antzinatasuna duela egiaztatzen duen froga.
- Aldezturik gutxienez aldizkariaren bi ale argitaratu direla egiaztatzeko froga.

- Memoria ekonomikoa, sustatzaileek maketazio gastu guztiak euren bizkar hartuko dituztela egiaztatzen duen konpromisoa biltzen duena.

Lehenengo baldintza betetzen duten baina antzinatasunari buruzko bigarren baldintza betetzen ez duten argitalpenen kasuan, Argitalpen Kontseiluak oniritzia eman ahal izango dio sartzeko eskaerari, honako kasu hauetan:

- Proposatutako aldizkariak eskaera egiteko unean indarrean dagoen UPV/EHUren Plan Estrategikoan zehaztutako helbururen bati erantzuten dionean.
- Nazioartean eragina izan dezakeen eta nazioarteko iker-tzaileen ekarpenak erakartzeko gaitasuna duen aldizkaria izatea aurreikusten denean.
- Jardunean dauden UPV/EHUa aitortutako bi ikerketataldereen edo gutxienez UPV/EHUko bi sail eta/edo ikastetxeren babes zabala duenean, tokiko eta nazioarteko dezberdinen eragileren lankidetzeta, argi eta garbi zeharkako eta diziplinarteko proiektu bat islatzen duena.

Kasu horietan, proposamena aldi baterako, zehazki hiru urtez, onartu ahal izango du Argitalpen Kontseiluak, eta denbora hori pasatu ostean proposatutako helburuen irismena ebaluatuko da.

Argitalpen Zerbitzuko web atarian integratutako aldizkari-erantzuleek UPV/EHUa IKTen Gerenteordetzaren bidez ezarritako tresna informatikoak erabili ahal izango dituzte aldizkarietako edukiak kudeatzeko.

## **XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA**

Egiaztatzen bada aldizkariren bat ez dagoela autofinantzaturuta (gutxienez, % 50), fakturazio garbiarekin edo sustatzaileen ekarpenekin, halaxe jakinaraziko zaio aldizkariaren ardurdunari, eta argi adieraziko zaio finantzaketaren ehuneko hori bermatuko duen bideragarritasun ekonomikorako plan bat aurkezten ez badute bi hilabeteren epean, aldizkaria soil-soilik bertsio digitalean argitaratuko dutela.



## 1. ERANSKINA: JATORRIZKOAK AURKEZTEKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

### A) *Argitara eman beharreko materialen tratamendu eta maketazioa behar duten jatorrizkoak*

- Inprimatutako kopia bat aurkeztu.
- Inprimatutako kopiari dagozkion artxiboak aurkeztu. Fitxategi guztiak testu prozesagailu ohikoekin landu ahal izateko formatuan egongo dira.
- Testu prozesagailuetarako fitxategian gehitutako figurak, irudiak, argazkiak, eskaneatzeak, digitalizazioak eta testuz besteko elementu guztiak.

### B) *Irteera eta euskarri grafiko elektronikoetarako (web, CD, DVD) jatorrizkoak*

- Inprimatutako kopia bat aurkeztu.
- Kopia inprimatuari dagokion PDF dokumentua.
- PDF artxiboa sortzeko erabili den berezko fitxategia.

OHARRA: Halakoetan, Argitalpen Zerbitzuak gainbegiratu egingo du, besteak beste, ondorengoak ebaluatzeko: erabilitako tresnen gaineko jakintza, kaxa, diagramazioa, neurriak eta tamainak, maketazioa, eta makinaren arteko interpretazio eta komunikazio egokia. Horrez gain, UPV/EHUren argitalpen ildoak eta irudi korporatiboari dagozkion bildumen, serieen, aldizkarien eta abarren egitura teknikora egokitzen direla ziurtatuko du.

**C) *Jada tratatuta eta maketatuta dauden jatorrizkoak, erreproduktzioarako prest eta PDF formatuan aurkeztuta***

**1. kasua.** Liburu digitala: aurkeztutako materialak PDF bihurtzeko tratatu egin behar diren eta bistaratzeko, inprimatzeko edo, hala badagokio, deskargatzeko diren jatorrizkoak:

- Inprimatutako kopia bat aurkeztu.
- Inprimatutako kopiari dagozkion artxiboak aurkeztu.
- Testu prozesagailuetarako fitxategian gehitutako figurak, irudiak, argazkiak, eskaneatzeak, digitalizazioak eta testuz besteko elementu guztiak beren berezko formatuan isolatuta aurkeztuko dira.

**2. kasua.** Irteera elektronikorako tratatu, bateratu eta egokitu egin behar diren elementu sakabanatuak dituzten jatorrizkoak:

- Egin nahi den eskema aurkeztea.
- Berezko artxiboak aurkeztea.

**3. kasua.** Multimediarako tratatu, bateratu eta egokitu egin behar diren material sakabanatuak dituzten jatorrizkoak:

- Egin nahi den eskema aurkeztea.
- Berezko artxiboak aurkeztea.

**4. kasua.** Tratatuta datozen eta erreproduktzioarako, erreplikarako edo web sarean sartzeko prest dauden jatorrizkoak:

- Proiektuaren aurkezpena.
- Matrize nagusia aurkeztea.

OHARRA: Halakoetan, Argitalpen Zerbitzuak gainbegiratu egingo du, besteak beste, ebaluatzeko erabilitako tresnen gaineko jakintza, ikusgaitasuna, egitura, estekak, etab.; eta makinaren, sistemen, euskarrien eta nabigatzaileen arteko interpretazio eta komunikazio egokia. Horrez gain, UPV/EHUren argitalpen egitura teknikora eta irudi korporatiboaren egiturara egokitzen dela ziurtatuko du.

## 2. ERANSKINA: ARGITALPENEN ZERRENDA

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren estilo arauak onartzerakoan, ondorengo serieak, bildumak eta aldizkari inprimatuak daude Argitalpen Funtsean:

### A) *Serieak*

- Artea: Agiriak, Testuak
- Biztanleriaren Historia
- Ekonomia eta Enpresa
- Erdi Aroko eta Aro Berriko Historia
- Euskal Literatura Saila
- Filologia eta Hizkuntzalaritza
- Filosofia
- Giza Zientziak
- Hezkuntza eta Psikologia
- Historia Garaikidea
- Komunikazio
- Zuzenbidea

### B) *Bildumak*

- Anejos de Veleia: Maior, Minor, Actas
- Bibliotheca Scriptorum Classicorum Vasconica
- Clásicos Vascos en castellano
- Colección de Estudios Internacionales
- Gizarte Klasiko Garaikideak
- Inéditos de Historia
- Julio Urkixo Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak
- Koldo Mitxelena Katedra
- Nazioarteko Ikasketen Katedra
- Nazioarteko Zuzenbide Ikastaroak (Vitoria-Gasteiz)
- Legeak/Leyes
- Limes

- Poesía Vasca hoy/Gaur Egungo Euskal Poesia
- Sánchez Mazas Katedra
- Textos clásicos del pensamiento político y social en el País Vasco
- ZIO, Zientzia Irakurle Ororentzat

**C) Aldizkarien Funtsean sartutako goiburuak**

- Arqueología de la Arquitectura
- ASJU, Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo
- Ekaia. Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzi eta Teknologik Aldizkaria
- Fabrikart. Arte, Tecnología, Industria, Sociedad
- Guineana. Revista de Botánica
- Gogoia. EHUko Hizkuntza, Ezagutza eta Komunikazio Aldizkaria
- Historia Contemporánea
- IJDB, The International Journal of Developmental Biology
- Lan-Harremanak. Revista de Relaciones Laborales
- Papeles del CEIC
- Revista de Psicodidáctica (ELSEVIERek kudeatuta 2017tik)
- Revista Vasca de Economía Social/Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria
- Tantak. Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria
- Theoria. Revista de Teoría, Historia y Fundamentos de la Ciencia
- Veleia. Revista de Prehistoria, Historia Antigua, Arqueología y Filología Clásicas
- Zer. Revista de Estudios de Comunicación